



MARIA LUISA MAIZTEGI

Gaur egun Olakua-San Lorentzo aldia pisoz jositta badago be, etzan horrelakua Maria Luisaren gazte denporan; Bidaurreta onduan eguen Maiztegi txokolaterixako alabia izanda, Larrañako baserrixak eta zelaixak izan zittuan jolasleku, eta, Bilbon urte mordotxua pasau eta gero atzera be jaixoterrira etorri danian, betiko Maria Luisa, hemen-dik fan zan neskatillia izaten jarraiketan dauela dixo. Kanpuan izandako denpora horretan ume-umetatik eukan artista-sena bideraketako modua topau eben pintturiaren bittartez. Kontu honeitxek eta beste batzuk ebali dittugu berarekin egindako alkarrizketa honetan.

- Noiz konturatu zian dibujaitia gustaitten xatzula?

Txiki-txikittatik dakot afiziño hori. Amak labesua egitten ebenian, han ibiltten nintzan ni inguruan ogi-masiarekin muñekatxuak, txakurtxuak, etxetxuak eta holakuak egitten. Orduan ez eguen buztinik eta plastilinarik oraingo moduan. Gerotxuago, erropatxuak josten be hasi nintzan. Beti nebillen zerbaittetan, josi, dibujau, bordau...

- Familixan horretarako giro berezixa euki zeben?

Nik neuk behintzat izan neben tio baten eragiña. Tio Kasimirok nik egitten nittuan dibujuak eta, asko baloraitten zittuan eta txikittan asko animau nindduan. Gero, Ameriketara fan zanian be, hara bialketan notzan dibujuok.

- Zelakua izan zan zure gazte denporia?

Oso epoka politta izan zan. Orduan herrixan danak ezaguketan giñan, baiña ni benetan kuriosia nintzan eta hor ibiltten nintzan baserririk baserri eta dendarik denda. Eskolara be berandu allegaitten nintzan, batian Txarraskonian banastak zela egitten zittuain ikusten, hurrenguan Silleronian alpargata artian.

- Josteko esku ona ei zeukan?

Bai, barruko erropa fiña egitten neben gehixen bat, ezagunentzat edo lagunentzat. Gero Bilbora ezkondu nintzan, eta han etxian jarri neben konfeziño-taillerra. Hamabost joskin be izan nittuan neretako lanian.

- Zer josten zeben eta norako?

Batez be barruko erropia: barruko gonak, kamisoiak. Eta saldu... ba,



Maria Luisa gaztetan txokolaterixa aurrekaldian eguen zelai batian.

leku askotara. Bijañtiak be banittuan. Nik muestrarixua gertaketan neben eta eurak muestrarixoa harekin batera eta bestera ibiltten ziran, Bartzelonara, Kanarietara...

- Diseñua be zeuk egitten zeben?

Pinttura munduan beti dago zer ikasirik eta neri etxat bide barrixak probaitteko gogorik faltako, pintzela eskuan hartzeko gauza naizen bittartian.

Bai. Lehenengo dibujau egitten neben, gero modelua atara, patrioiak egin, taillerrera eruan eta han batak moztu, bestiak josi... Horregatik dibujau be bihar-biharrezkua neben.

- Zenbat denbora jardun zeben hola?

Dexente. Umiak txikiñak ziran bittartian hortik bizi izan giñan. Gaiñera, eskerrak taillera etxian bertan neukanari; sei seme-alaba eukitta ezin neben kanpora urten hareik etxian itxitta. Gerora euki neben bijañtiarekin batera negozio haundixagua jarreteko aukeria, baiña horrek umiak apurtxo bat aldamenara izteia ekarren eta eneben gura izan. Neretzat oso inportantia izan da seme-alabak onduan eukittia.

- Kuadrak pinttaittari noiz ekin zotzan?

Josten neben garaixan, lana akabo eta gero, batzuetan pinttau egittin neben; kantsauta egoten nintzan eta ondo etorten xaten zerbaitt diferentia egittia.

- Nun ikasi zebeu pinttaitten?

Iñun bez! Bai josten, bai pinttaitten neure kasa ikasi neben; berezkua izan dala uste dot. Bilbon fan nintzan bi edo hiru maixurengana ikastera, baiña danak esan nostain nik neure estilua neukala eta eurak ezin nostaila ezer erakutsi; egin biharrekua neuk bakarrik egin bihar nebela.

- Pinttaitteko afiziño hori zela bihurtu zan ofizio?

Ba, begira, oso gauza politta pasau xakun behin. Etxian bageukan orduan ama birjiña baten kuadrua; eztakitt noiztik eguen be. Alabarik zaharrenak esan nostain: ama zergatik eztoqu saltzen kuadro hori diru pittin bat atarateko?

—izan be, sasue haretan nahikua egoera larrixan geuntzen diru alde tik— eta halaxe, entenditten ebein bi gizon ekarri gittuan kuadruori ikustera; ezer askorik ez ebela balixo esan oskuen, baiña, han ezkiña baten egozen nere pintturak ikusi zittuain, norenak ziran preguntau ebein. Nik, ia zergatik esaten ebein hori, eta eurak oso onak zirala pintturok. Nik, barriz, barrerik ez egitteko neuriak zirala eta; eta orduan esan nostain: eta zu josten zabitz, holako pintturak egittin dakitzula?

- Eta harrazkero...

Orduan apur bat gehixago pinttaitten hasi nintzan, baiña enintzan atrebitten nere lanak kaleraketan, nere egoeria be berezi xamarra zan eta. Apartauta nenguan eta eneukan zarata haundirik atarateko gogorik. Gizona izan banintz, beste modu batera izango ziran gauzak.

- Egoera gogorra orduan...

Bai. Nere izenian ezer ataraten atrebitten enintzalako, beste baten izenarekin agerketan ziran kuadruok. Nik pinttau eta beste batek firmia jarri eta esposiziñuak egin. Gero handik denbora batera, neuk egittia erabaki neben, baiña orduan be suerte txarra euki neben: galerixa baten nere kuadruak erakusteko baiezku emun nostain, eta puntukotxe jakin neben semia kotxe-akzidentian hil zala, eta dana bertan behera itxi neben.

- Noiz arte?



Maria Luisak, etxian pinttaitten dauenian, espillu bat ebalten dau kuadruaren perspektibia ikusteko.

Horrek lur jota itxi nindduan eta urte batzutan ezertarako gogo barik ibilli nintzan. Baiña halako batian, illoba pinttore baten arrimuan Reinosan jarri neben esposiziñuak euki eben arrakastia ikusitta, atzera be lanian hasi nintzan. Esposiziño asko egin izan dittut, azkena oraintxe bertan Algortan, baiña kuadro gehixenak etxetik bertatik saldu dittut, leku askotara saldu be.

Kontrakua emuten dauen arren, pinttorioek disziplina eta borondate haundixa bihar izaten dogu lanerako.

- Zer dala ta bueltau ziñan Oñatira?

Seme-alabak haundi egin ziran eta ez eukain nere biharrik, euren bidian jarri ziran. Orduan, urte pare baterako Oñatira etortia pentsau neben, hemen trunkillago egongo nintzalakuan. Pentsaizu, bi urterako etorri eta enaiz gehixago fan. Orain seme-alabairi eurak etorteko esaten dostet, ni hemen oso ondo naguela eta.

- Etxatzun gogorra egin hemen

ohiketia, Bilbon bizi izanda gero?

Ez. Batzuk esaten nostain enebela 6 hilabete be iraungo, baiña hemen jarraiketana dot. Izan be, neri ziudadeko girua etxat sekula gustau, eta han bizi nintzania be askotan faten nintzan inguruko herritxotara, mendira.

- Pinttaittera faten ziñan?

Bai, ahal neben guztietan. Beti neukan beste txokoren bat Lekeitixon, Bakixon... Horretan bai suerte ona izan dotela: jende jatorra izan dot inguruan, lagun onak, herri zoragarri horreittan euren etxia eskintten nostainak.

- Orduan, Bilbon bizi izan ziñanian be, herriz herri ibiltten ziñan...

Bai, horregatik etxaten gogorra egin Oñatira etortia. Gaiñera, nik itxura batian oso fuertia naizela emun arren, barru-barruan enaiz holakua eta hemen oso ondo hartu naue; eta hori eskertu biharra dakot Oñatiko jentiarri eta herrixari.

- Hona etorri eta gero be pinttaitten jarraitu dozu. Zer izan da gehixen pinttau dozuna?

Han, Bilbon, figurak egitten hasi nintzan; baiña saldu gehixago egitten da paisajia eta, klaro, hor lotuta zagoz, ezin dozu zeuk gura dozuna egin. Ia hemendik aurrera neuk gura dotena egitten doten. Dana dala, orain arte paisajiak eta marinak asko egin dittut. Gai urbanuak, barriz, ezit tut sekula pinttau.

- Zein teknika erabiltten dozu?

Esan dot lehen be ni neure kasa ibilli naizela eta eztoz aparteko teknikarik ikasi. Pintturiak norberaren personalidadia euki bihar dau, norberaren estilua, hori bihar-biharrezku da. Akaso hori hartzeia kosta egitten da, baiña hori da inportantiena, pittinka-pittinka, idazkeria moduan, norberaren estilua hartzeia.

- Zuk hasieratik euki dozu estilo bardiña ala epoka diferentia eta eboluziñua egon da zure pintturan?

Ez, eztoz uste eboluziñorik egon danik. Nik barruan dakotena ataraten dot eta nik uste dot enaizela aldatu, ezta kotelako kanbixaitteko gogorik; nik barrua hemendik alde egin nebentzian neukan moduan dakot, igual-igual. Gaiñera eztoz gura aldaketarik be, aukeria izan doten arren.